

2011-05-03

Eskola txikiak Abaltzisketan bilduko dira

Ekainaren 12an egingo dute Gipuzkoako ikastetxe txikiek urteroko jaia, arreta geroko erronketan jarrita

Erredakzioa Donostia



Abaltzisketan egingo den jaiaren aurkezpena, atzo. / GARI GARAIALDE / ARGAZKI PRESS

Abaltzisketan ospatuko dute Gipuzkoako eskola txikien aurtengo jaia. Ekainaren 12a da festa eta aldarrikapena uztartzeko aukeratu duten igandea. Herriko Txalburu eskolak eta bertako ikasleen gurasoek antolatuko dute. Atzo egin zuten aurkezpena, eta Eskola Txikietako Gurasoen Koordinakundeko Mikel Olanok eskola hauen garrantzia gogora ekartzeko aprobetxatu zuen aukera. Gipuzkoan 27 eskola txiki daude gaur egun. Herrien eta eskola txikien arteko loturan jarri nahi dute arreta: «Garbi dugu eskola txikia herri txikietako bihotza dela».

Jaiaren koordinatzaile Joxe Ramon Mujikak bat egin du hausnarketa horrekin. Alegia, herri txikietan eskola txikiek duten garrantzia nabarmendu nahi izan du: «Jaia eta ospakizuna etorkizuneko erronkekin uztartu nahi ditugu, ez baitugu ulertzen Abaltzisketarik eskola txikirik gabe».

Ereduetako bat

Horren erakusle, aurten jaia ospatzeko aukeratu duten herrian eskolak izan duen bilakaera jarri dute, eta zenbat lan egin behar izan duten gogorarazi dute. Abaltzisketak herri eskola publikoa izan zuen, baina 1975ean itxi egin zuten. 1999an Amezketako Zumardi eskolaren ikasgela moduko bat ireki zen Abaltzisketan, haur eskolako umeekin. Poliki-poliki urtero ikasle gehiago izan zituen, eta hezkuntza mailak ere haziz joan ziren. Egun, haur hezkuntza eta lehen hezkuntza osoa ikas ditzakete Abaltzisketako umek herritik irten ere egin gabe. «Ikusia dago lan askoren poderioz eta guztion konpromisoarekin gauzak lortzen direla», diote.

Bukatzear dagoen ikasturte honetan, lau gelatan banatuta dauden 37 ikasle ditu Abaltzisketako eskola txikiak. Jangela zerbitzua ere badute, eta herriko ostatuan egunero hamasei ikaslek bazkaltzen dute.

Eskola sortu zenetik hona bide luzea jorratu behar izan dutela diote. Asko lortu dutela eta horregatik harro sentitzen direla aitortzen dute. «Baina beti da zer hobetua eta zer egina». Asmo horrekin bat egiten dutenak gonbidatu nahi dituzte festara.